



Esp. zk. SUBV_CON_COMPET/2026/11

Gizarte Ekintzako dirulaguntza-deialdia, norgehiagokako araubidean

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa. Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak hasiera batez onetsi zuen ordenantza hori 2005eko azaroaren 3an hartutako erabakiaren bidez, eta erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean inork erreklamaziorik aurkeztu ez zuelako. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri.** ([2006ko 21. NAO](#)n, [otsailaren 17koan](#), [argitaratua](#)).

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emaila:	Gizarte Ekintzako Zinegotzi Ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Gizarte Ekintzako Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko idazkaritza teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Araubidea ezartzea, 2026ko ekitaldian irabazi-asmorik gabeko erakunde eta elkarteei Gizarte Ekintza arloko dirulaguntzak emateko, berariazko jardueren bidez gizarte ekintzaren garapena bultzatuko duten proiektuak egin ditzaten Iruñean, desgaitasunari/mendekotasunari eta gizarteratzeari berariaz zuzendutako programen esparruan.

2. Deialdiaren helburua:

Desgaitasuna/mendekotasuna edo/eta gizarte-bazterkeria jasaten duten kolektibo eta pertsonen gizarteratzea eta aukera-berdintasuna bultzatzea, bai eta gizarte-arriskuko egoeren prebentzioa eta zaurgarritasun, babesgabetasun, mendekotasun edota gizarte-bazterkeriako egoeren tratamendua ere.

3. Ekintza, proiektu, jokamolde eta jarduera diruz lagungarriak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak:

ENTITATE ESKATZAILE BAKOITZAK gizarte-ekintzako PROIEKTU BAKARRA egiteko dirulaguntza eskatu eta jasotzen ahalko du, bai banaka parte hartzen badu deialdian, bai entitateen talde bat ordezkatuz egiten badu.

Aurkeztutako proiektua beste proiektu edo programa handiago baten parte izan daiteke. Halako kasuetan, argi zehaztu beharko da proiektuaren edo programaren zein partetarako eskatzen den dirulaguntza eta parte horren kostua.

3.1.- Proiektuen helburuak eta jarduketa-esparrua:

Dirulaguntza zein proiektutarako eskatu eta horien edukiek honako helburu hauekin bat etorri beharko dute, eta jarraian aipatzen diren bi jarduketa-esparru bakar bati lotu (IV. eranskinean adieraziko dena):



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

a) DESGAITASUNAREN/MENDEKOTASUNAREN esparruan: desgaitasuna/ mendekotasuna dutenek gizarte-jardunari aukera berdintasunean hel diezaioten sustatzea, gizarte-bazterkeriako egoerak larriagotzen dituzten faktoreak ekidinez. Horregatik, proiektuek honako hauetara bideratuta egon beharko dute:

- Beste esparruetan kontuan hartzen ez diren hezkuntza-, prestakuntza- eta gizarteratze-alderdiak, psikosozialak eta autonomia sustatzekoak osatzera.
- Lanbide-irisgarritasuna erraztera, norberaren autonomia eta independentzia ekonomikoa lortzeko bide gisa.
- Boluntarioen prestakuntza sustatzera gizarte- eta osasun-arloan.
- Erasan komun baten inguruko autolaguntza-proiektuei babesa ematera.

b) GIZARTE-INKLUSIOAREN arloan: gizarte-zaurgarritasun edo bazterketa-egoeran dauden pertsonen, familien eta/edo taldeen egoera hobetzera. Horregatik, proiektuek honako hauetara bideratuta egon beharko dute:

- Alderdi psikosozialak, prestakuntzakoak, etxebizitzakoak, soziosanitarioak eta gizarteratzekoak hobetzera.
- Enplegu bat lortzeko baldintzak erraztera, gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbideen bidez.
- Boluntarioendako prestakuntza sustatzera.
- Beren helburuen artean autolaguntza duten kolektiboek zuzendutako proiektuak babestera.

3.2. PROIEKTUEK deialdi honetan parte hartzeko bete behar dituzten betekizunak:

- a) Proiektu zehatzak eta globalak osatu behar dituzte, eta ez bakarrik jarduera isolatuak izan.
- b) Aurkeztutako proiektuak egokia izan behar du deialdi honen xede eta helburuarekiko.
- c) Oro har, Iruñeko udal-mugartean gauzatuko da. Tokiko eremua ez den (estatukoa, eskualdekkoa) proiektu zabalago batean sartzen bada, udalerrriaren interesek erantzun beharko die zuzenean edo zeharka: Iruñeko lurralde-eremuan duen berariazko eragina zehaztu beharko da.
- d) Behar bezainbeste garatua eta justifikatua egotea honako hauei buruzko informazioa: helburuak, jarduerak gauzatzeko erabiliko diren espazioak, baliabideak (giza baliabideak zein materialak), gauzatze-epeak, jardueraren jarraipena, ebaluazio-sistemak, etab.
- e) Dirulaguntza zein proiektutarako eskatu eta hori 2026. urtean gauzatu beharra dago.
- f) Baldin eta aurkeztutako proiektua aurreko deialdietan diruz lagundutako beste baten jarraipena bada, onuradun gisa ezarritako betebeharrak beteta izan beharko dituzte (dagokion deialdian eskatutako segimendu-txostenak eta frogatze-agiriak aurkeztuta). Ez dira diruz lagunduko beste batzuen jarraipena diren proiektuak, baldin eta aurrekoak bete izana justifikatu ez bada.
- g) Proiektu guztiek genero-ikuspegia izan behar dute, hala horiek prestatzean nola burutzean, benetako berdintasuna sustatzeko.

3.3. Honako hauek daude deialdi honetatik at:

- Osasun, hezkuntza edo/eta kirol arloko edukiak besterik ez dituzten proiektuak.
- Sentsibilizazio-, komunikazio- edo hedapen-jarduerak egitea beste edukirik ez duten proiektuak.
- Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak egitea beste edukirik ez duten proiektuak.
- Komunitate arloko prebentzio- eta sustapen-proiektuak, haurren eta gazteen aisialdiaren eta denbora librearen esparruan.
- Ez dira diruz lagunduko Udalaren edo Administrazioen –zein bere eskumen-esparruan– programetan edo zerbitzuetan dagoeneko sarturik dauden proiektuak edota jarduerak, salbu eta horiek Administrazioaren jarduketaren osagarritzat jotzen badira; hori justifikatu egin beharko da, eta dirulaguntzak bideratzeko fasean baloratuko da horien egokitasuna.
- Gizarte Ekintzako Alorraren programen edo zerbitzuen jarduna zuzenean oztopatu edo programa eta zerbitzu horien berezko esku-hartzeak ukitu edo eragozten dituzten proiektuak edo jarduerak.
- Sexu-arrazoiak direla medio diskriminatzaileak diren proiektuak edo jarduerak, salbu eta sexuen arteko desberdinkeria zuzentzeko efektua bilatzen duten kasuetan; hori justifikatu egin beharko da, eta dirulaguntzak bideratzeko fasean baloratuko da horien egokitasuna.



C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 340.000 €

Deialdi honi esleitutako gehieneko aurrekontu-kontsignazioa honako lerro hauetan banatuko da, jarduketa-esparruaren arabera, eta esparru bakoitzak honako zenbateko hauek izanen ditu:

a) Desgaitasunaren/menpekotasunaren esparrua: 202.000 euro.

b) Gizarteratzearen esparrua: 138.000 euro.

Bi jarduketa-esparruetako bakoitzari aurrekontu-zenbateko bat esleitu zaio aurkeztu eta haietan sartzen diren proiektuen artean banatzeko. Deialdi honetako aurrekontua banatzeko gehieneko zenbatekoren bat ez bada agortzen, beste lerroko zenbatekoari gehitzen ahalko zaio, lerro horretako aurrekontu-beharren arabera.

Dirulaguntzek ezin izanen dute gaintitu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 70/23181/482090

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Entitate onuradun bakoitzari emanen zaion kopuruak ezin izanen du gaintitu aurkeztutako proiektuaren aurrekontuaren % 80, hala eskaria entitate batek banaka egiten badu nola bi entitatek edo gehiagok osatutako talde baten izenean egiten badu.

Ez da onartuko eskatu beharreko defizita 20.000 eurotik gorakoa duen proiekturik. Dirulaguntza eskatutako eta onetsitako aurrekontuaren defizitaren (gastuak/diru-sarrerak) ehuneko jakin bat izanen da. Dirulaguntzaren zenbatekoa defizitaren ehuneko jakin bat izanen da, eta proiektuak eskuratutako puntuazioak bezainbeste joko du; horrela, gehieneko puntuazioa (100 puntu) eskuratzen duten proiektuek defizitaren % 100 jasotzen ahalko dute (ez da ezein kasutan izanen proiektuaren guztizko aurrekontuaren % 80 baino handiagoa), eta gutxieneko puntuazioa (60 puntu) lortu dutenek defizitaren % 60 jasoko dute.

Aurrekontu erabilgarririk izanez gero, ehuneko horien azpitik ere eman daitezke dirulaguntzak, hurrengo atalean xedatutakoarekin bat.

4. Hainbanatzeko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu: Balorazioaren eta aurkeztutako eskaera-kopuruaren ondorioz deialdi honetan erabilgarri dagoen aurrekontua nahikoa izan ezean, murrizketa bat egingen da, proportzionalki, dirulaguntzaren onuradunen artean.

5. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

6. Urtekoak:

Urteko arrunta:	340.000 €	2. urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa ()	€	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETEKIZUNAK:



1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko betekizunak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izan daitezke onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

a) Legearekin bat eratutako pertsona juridikoak izatea, eta dagokien Erregistroan izena emanda izatea, eskaera aurkezteko mugaegunean, betiere indarra duten legeekin bat baldintza hori eskatzen ahal bada. Dokumentazio hori egunean eduki beharko dute.

b) Irabazi asmorik ez izatea.

c) Egoitza edo ordezkaritza iraunkorra Iruñean edukitzea. Nolanahi ere, dirulaguntza honen onuradunak izaten ahal dira baldintza hau bete ez baina Iruñeko udalerrarentzat eta bertako herritarrentzat onuragarri diren proiektuak aurkezten dituzten entitateak.

d) Haien estatutuetan berariazko helburu nagusiak gizarte-arreta eta esku-hartzea izatea, koadro honetako B. 3) apartatuan aipatzen diren proiektuen dirulaguntza zein modalitatetan eskatu eta horri dagokion esparruan.

e) Halako egitura edukitzea ezen nahikoa izanen baita hala bere helburu sozialak beteko direla bermatzeko nola proposaturiko helburuak erdieste aldera behar diren eskarmentua eta jarduteko gaitasuna egiaztatzeko.

f) Entitateek 17/2019 Foru Legean eta Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriako 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

g) Entitateek Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko 5/2018 Foru Legean ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzetik:

☐ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

- **Emandako dirulaguntza zein xedetarako jaso eta horien gastuak estaltzeko baino ez erabiltzea.**

- **Gardentasun-betebeharrari erantzunez, entitate onuradunek informazioa izanen dute honako hauei buruz: gobernu-, administrazio- eta zuzendaritza-organoen osaera; kargudunen zerrenda eta horien dedikazio-araubidea; kargu bakoitzeko entitateak eskuratutako diru-sari gordinak eta bestelako diru-sarrerak, kontzeptuka banakaturik, eta urteko kontuak –organo emailearen eskura egonen dira, eta organo horrek eskatzen ahalko ditu dirulaguntzaren onuradun suertatuz gero–.**

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

bezalako publizitatea egin beharko dutedirulaguntzaren xede diren jarduerak edo proiektuak Udalak emandako finantzaketa publikoaren bidez egin direla hedatzeko. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko dute komunikazio- edo publizitate-idatzi eta -grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitateari dagokionez, honako lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan, Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen, dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman den, horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikularekin bat: ☒ BAI ☐ EZ

Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Hasierako proposamena berriz egokitu behar denean jarduerak zein errealitatetan garatu behar diren eta horretara, aldaketak egiten ahalko dira proiektua gauzatzean, hasierako aurreikuspenei dagokienez, ustekabeko inguruabarrak direla medio, inguruabar horiek kontuan hartzekoak badira jarduera zuzen betetzeko, betiere aldaketa horiek ez badute eragiten funtsezko aldaketarik proiektuan diruz lagundutako jardueraren izaera zein helburuak aldatuta, eta ez badituzte dirulaguntza emateko balorazioan aintzat hartu diren inguruabarrak aldatzen.

Aldaketa horiek egin ahal izateko, eskaera arrazoitua aurkeztu beharko zaio dirulaguntza kudeatzen duen unitateari, aldaketak justifikatzen dituzten inguruabarrak agertu eta berehala eta, betiere, aldaketak egin baino lehen, horiek baimendu egin beharko baitira.

BIRFORMULAZIOA:

Halaber, dirulaguntzaren zenbatekoak eskatutako kopuruak baino gutxiago jotzen badu, proiektua eta proiektuaren aurrekontua benetako finantzazio-aukeretara doitzeko eskatzen ahalko zaio onuradunari, dirulaguntzaren gaineko ebazpena eman baino lehen. Gastuen aurrekontua eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu den neurri berean murrizten ahalko da, edo bestela, diru-sarreraren aurrekontua dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu den neurri berean handitu. Halakoetan, dirulaguntza kudeatzen duen unitateak eskatzaileei jakinaraziko die eskaera aurkezteko epea, zeina bost eta hamar egun naturalekoa bitarte izanen baita. Behin epe hori amaituta, balorazio bat egingen da aurkeztutako aldaketen gainean, baina aldaketa horiek ezin izanen dute funtsean aldatu proiektua.

Proiektua garatzen den bitartean onuradunak sartzen badiu deialdi honetan ezarritakoarekin bat aldez aurretik baimendu gabeko aldaketak, zilegi izanen da jasotako dirulaguntzak osorik edo hein batean itzularaztea, edo, hala badagokio, dirulaguntza kobratzeko eskubidea osorik edo hein batean galtzea.

Proiektuaren barruan hainbat jarduera independente baldin badaude, baldintza horrek soilik eraginen die baimendu gabeko aldaketak izan dituzten jarduerari (funtsezko aldaketaren bat egin den kasuetan salbu).



G. ESKABIDEAK AURKEZTEA:

1. Eskabideak aurkezteko tokia:

Dirulaguntzetarako eskabideak honako toki hauetan aurkezten ahal dira: Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean, Kondestablearen jauregian (Kale Nagusia 2, behea), erregistro osagarrietan, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozeinetan.

2. Eskabideak aurkezteko epea: Eskabideak aurkezteko epea HILABETEKOA izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko.

3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko (aurkezpen telematikorako) eskabidez, interesdunak edo dirulaguntza eskatzeko ordezkapen nahikoa edukita ordezkapen horren gaineko erantzukizunpeko adierazpena egin duen pertsonak sinaturik, betiere "dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" izapiderako aurreikusitako jarraibideekin bat.

Ez da beharrezkoa izanen G.4) apartatuan aipatutako agiriak aurkeztea, baldin eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluekin bat, jarduten duen Administrazioak jada bere eskuetan baditu edo beste edozein Administraziok egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu betekizunak betetzen, ez badira deialdi honetan ezarritako agiriak aurkezten, edo bestela, ez bazaio Iruñeko Udalari baimenik eman agiriok egin dituen administrazioaren bidez eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldez aurretik ebazpena emanen delarik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak. Honako hauek frogatzen dituzten egiaztagirak: entitatea legeekin bat eraturik dagoela, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen dutenak, eta eskabidea aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela.

Ez da beharrezkoa izanen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen arka agertu.

Entitateek honako hauek aurkeztu behar dituzte dirulaguntza lehenbiziko aldiz eskatzen badiote Udalari:

- Legezko ordezkariaren identifikazio fiskaleko txartelaren eta NANaren kopiak.
- Entitatearen edo elkartearen estatutuen kopia.
- Egiaztagiria, eskaera aurkezteko unean zeini bere izaera juridikoa dela-eta dagokion Erregistroan izena emana duela ziurtatzeko, betiere hori eska badaiteke indarra duten arauarekin bat.
- Hirugarrenen fitxa, bertan IBAN osoa agertuta.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

b) Erantzukizunpeko adierazpena, izapide telematikoan emandako jarraibideekin bat, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak horiek, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin baditu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu, dirulaguntza eskatzean egindako adierazpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

d) Deialdiak ezartzen badu eskatzailea pertsona-talde bat izaten ahal dela, izan pertsona fisikoak, izan juridikoak (publikoak ala nortasun juridikorik gabeko pribatuak), eskabidean berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahalduen bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non jakitera emanen baitira xede bererako eskatu edo jaso diren beste dirulaguntza batzuk, beste administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribatu batzuei eskatutakoak edo haiengandik jasotakoak. Zehaztu beharra dago zenbat eskatu zaien, entitatearen izena eta erdietsitako kopurua. ☒ BAI ☐ EZ

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

IV. eta V. eranskinetako ereduarekin bat aurkeztuko da, bai eta gauzatu beharreko proiektua edo jarduera zuzen baloratzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein agiri ere (grafikoak, teknikoak, finantzakoak edo bestelakoak). Eranskin horien ordezkari entitatearen beste eredu batzuk erabiltzen ahalko dira, baldin eta eranskinean jasotako datu eta puntu guztiak adierazita badaude.

Proiektuaren deskribapena jasotzen duen memoriak, IV. eta V. eranskinak eredu gisa hartu badira zein erakundearen eredu propioak izan, luzera mugatua izanen du, eta ezinen du 20 orri baino gehiago izan.

g) Hala badagokio, erantzukizunpeko adierazpena, VII. eranskinean jasotako ereduarekin bat, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteko 8/2021 Lege Organikoan eskatutako baldintzak betetzeari buruz, adingabeekin ohiko kontaktua duten lanbide, ogibide eta jardueretan aritzeari dagokionez.

Modu telematikoan egiten ez diren izapideetarako, agiriak jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatutakoak, edo bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak.

Telematikoki egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo kaitotutakoak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera, horrek ekar ditzakeen kalte-galerena ere.



H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: Guztira, 100 puntu:

DESGAITASUNAREN/MENPEKOTASUNAREN arloan:

1.- Entitatearen barne-koherentzia (10 puntu, gehienez):

- 1.1. Jarduera nagusiaren izaera eta entitatearen ibilbidea jarduketa-esparru horretan: 5 puntu bitarte.
- 0 puntu, deialdi honen xede diren jardueretan aldezturik eskarmenturik eduki ezean.
 - 2 puntu bitarte, izaera bereko proiektuetan gutxienez 1 urteko eskarmentua edukiz gero (*)
 - 3 puntu bitarte deialdi honetako esparru zehatzetan proiektuak egiten bi urteko eskarmentua edukiz gero Iruñean (*)
 - 5 puntu bitarte, aurrekoek gain 3 urte edo gehiagoko eskarmentua frogatu badu mota honetako proiektuetan (*)
- (*) Hurrenez hurren 1, 2 eta 3 puntu kenduko zaizkie, egindako jarduerak ez badu behar den koherentziarik.

1.2. Proiektuaren egokitzapena entitatearen benetako ahalmenei, hau da, entitatearen baliabide materialei, giza baliabideei eta baliabide ekonomikoek: 5 puntu bitarte.

- 0 puntu bitarte, ez bada azaltzen zein diren entitatearen baliabide materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak.
- 2 puntu bitarte, aurreko puntuan aipatutako aldagaietako biri erantzunez gero.
- 5 puntu bitarte, 3 aldagaiei erantzunez gero.

2.- Proiektuaren kalitate teknikoa (70 puntu bitarte):

2.1. Proiektuaren alderdi teknikoak: proiektuaren alderdien arteko egokitzapena, koherentzia eta doikuntza, proiektuaren oinarria, helburuak, jarduerak, esperotako emaitzak, giza baliabideak eta baliabide materialak, eta ebaluazio-adierazleak: 45 puntu bitarte.

Puntuen banaketa proiektuaren memorian adierazitako honako alderdi hauek kontuan hartuta egingen da: Proiektuaren oinarria: 8 puntu bitarte.

- Oinarriarik egon ezean, edo orokorra eta ez espezifikoak bada, 0 puntu.
- Deskribapena orokorra bada, 4 puntu bitarte.
- Proiektuaren berriazko oinarriak badaude, eta aurrekariak, arazoaren testuingurua, ikuspuntua, jarduketaren lehenespena eta esku-hartzearen gunea adierazten badira, 8 puntu bitarte.

Helburuak: 8 puntu bitarte.

- 0 puntu, helburu argirik egon ezean.
- 4 puntu bitarte, helburu orokorrak eta espezifikoak egon eta koherenteak badira proiektuan planteatzen den behararekin.
- 8 puntu bitarte, planteatutako helburuak, gainera, operatiboak eta egingarriak badira eta bat badatoz proiektuaren oinarriekin, eta arazoa konpontzera bideratuta badaude.

Jarduerak: 8 puntu bitarte.

- 0 puntu, jarduerarik planteatu ezean.
- 4 puntu bitarte, aurkeztutako jarduerak berriazkoak, egingarriak eta planteatutako helburuekin koherenteak izanez gero.
- 8 puntu bitarte, aurrekoaz gain, adierazten badira erabiliko den metodologia eta teknikak, behar diren baliabideak, egutegia, etab.

Giza baliabideak eta baliabide materialak: 6 puntu bitarte.

- 0 puntu bitarte, proiektua egiteko erabiliko diren baliabideak eta bitarteko teknikoak azaldu ezean.
- 3 puntu bitarte, giza baliabideak eta baliabide materialak zehaztasunik gabe azaltzen badira edo



azalpena orokorra bada.

- 6 puntu bitarte, giza baliabideak –kopuru eta profilaz bezainbatean– proiektuari egokitzen bazaizkio, eta aurreikusten bada proiektua gauzatzean eraginkortasun handiagoa bermatzeko bitartekoak erabiltzea.

Ebaluazio-adierazleak: 5 puntu bitarte.

- 0 puntu, proiektuaren ebaluazioa adierazi ezean.

- 2 puntu bitarte, aurkeztutako ebaluazioa ulergarria izan bai, baina ez badu adierazlerik edo parametrorik aurkezten.

- 5 puntu bitarte, argi eta garbi adierazten bada garatu beharreko ebaluazio-metodoa, eta jasotzen baditu balorazio-adierazleak eta -parametroak (kualitatiboak edo kuantitatiboak) eta esperotako emaitzak. Aurrekontuaren egokitzapena eta koherentzia: 10 puntu bitarte.

- 5 puntu bitarte, aurrekontua ez bada banakatzen eta proiektuko partiden zati bat baino ez bada zehazten.

- 10 puntu bitarte, azalpena behar duten partida guztien kalkulua argitzen bada, eta planteatutako jardueretarako koherentea eta arrazoizkoa bada.

2.2. Esku-hartzearen berezitasuna eta alderdi berritzaileak: 7 puntu bitarte.

- 0 puntu, proiektuak ez badu alderdi berritzailearik.

- 3 puntu bitarte, proiektuak berezitasunen bat badu jarduketaren xedearekiko.

- 7 puntu bitarte, proiektuak alderdi berritzaileak baditu ikuspegiari eta jarduketei dagokienez.

2.3. Proiektuaren onuradun izanen diren pertsonen estimazioa, parte-hartzaileen kopurua baloratzeko aintzat harturik hala proiektuaren xede den biztanleriaren guztizkoa nola proiektuaren kostua: 8 puntu bitarte.

- 0 puntu, onuradun izaten ahal den biztanleria aipatzen ez bada.

- 4 puntu bitarte, kalkulu orokorra egiten bada edo onuradunen ratioa oso txikia bada.

- 8 puntu bitarte, onuradun izan daitekeen biztanleriaren kalkulu zehatza egiten bada eta ratioa proiektuaren guztizko kostuarekin proportzionala bada.

2.4. Beste entitate eta gizarte-baliabide batzuekiko osagarritasuna eta koordinazioa proiektua garatzean: 10 puntu bitarte.

- 0 puntu, ez bazaie aipamenik egiten beste entitate batzuei eta bere kabuz aritzen bada.

- 5 puntu bitarte, jarduketa-xede bera duten beste entitate batzuekin koordinatzeko jarduketak aurreikusten badira.

- 10 puntu bitarte, proiektua osagarria bada eta jarduketa-xede bera duten entitate eta gizarte-baliabide publikoekin koordinatzeko jarduketak aurreikusten badira.

3.- Proiektuaren bideragarritasuna: 20 puntu bitarte.

Atal hau baloratuko da honako azpi-irizpide hauen arabera:

3.1. Aurreikusitako helburuen, erdietsitako emaitzen eta planteatutako aurrekontuaren arteko egokitasuna eta doikuntza:

10 puntu bitarte.

- 4 puntu bitarte, aurrez aipatutako 3 aldagaietako bati erantzunez gero (helburuak, emaitzak eta aurrekontua).

- 7 puntu bitarte, 2 aldagairi erantzunez gero.

- 10 puntu bitarte, 3 aldagaiei erantzunda bideragarria bada.

3.2. Boluntarioek jardueretan parte-har dezaten sustatzea: 10 puntu bitarte.

- 0 puntu, planteatutako proiektuak ez badu boluntario-lana sustatzen edo giza baliabideen artean ez badira boluntarioak aipatzen.

- 5 puntu bitarte, boluntarioen beharra aipatuz gero eta horiek jarduketa-esparru horretarako prestatzea planteatzen bada.



- 10 puntu bitarte, trebatutako boluntarioen poltsa eduki eta proiektua gauzatzeko behar diren boluntario-moten zerrenda bat egin badu.

Dirulaguntzen onuradun izateko, desgaitasunaren/menpekotasunaren arloan aurkeztutako proiektuek gutxienez 60 puntu lortu beharko dituzte, eta horietatik 35 gutxienez 2. apartatuan adierazitako irizpidean, "Proiektuaren kalitate teknikoa" deiturikoa.

GIZARTE-INKLUSIOAREN esparruan:

1. ENTITATEAREN BARNE-KOHERENTZIA (10 puntu)

1.1. Jarduera nagusiaren izaera (5)

Eskarmenturik gabe (0)

Urtebeteko eskarmentua (2)

2 urteko eskarmentua (3)

3 urte edo gehiagoko eskarmentua (5)

1.2. Proiektuaren egokitzapena entitatearen ahalmenei: entitatearen baliabide materialak, giza baliabideak eta ekonomikoak (5)

Ez dituzte entitatearen baliabideak azaltzen (0)

2 aldagairi erantzuten diote (2)

3 aldagairi erantzuten diote (5)

2. PROIKETUAREN KALITATE TEKNIKO (90 puntu)

2.1. Proiektuaren alderdi teknikoak

Oinarriak (5)

-Oinarritu gabea (0)

-Deskribapen orokorra (2)

-Berriazko oinarriak, aurrekariak, ikuspegia, gunea (5)

Helburuak (5)

-Helburu argirik gabe (0)

-Helburu orokorrak eta espezifikoak, eta koherenteak (2)

-Helburuak, gainera, operatiboak eta egingarriak dira eta bat datoz oinarriekin (5)

Jarduerak (5)

-Jarduerarik ez da planteatu (0)

Jarduera espezifikoak, bideragarriak eta helburuekin koherenteak (2)

-Horrez gain, metodologia, teknikak, baliabideak eta egutegia ere adierazten dira (5)

Giza baliabideak eta baliabide materialak (5)

-Ez da baliabide eta bitarteko teknikorik azaltzen (0)

-Giza baliabideak eta baliabide materialak ez datoz bat proiektuaren garapenarekin (2)

-Baliabideak proiektura egokitzen dira, kopuruaren eta profilaren arabera (5)

Ebaluazio-adierazleak (5)

-Proiektuan ez da ebaluaziorik adierazi (0)

-Ebaluazioa nahikoa da, baina ez du adierazlerik aurkeztzen (2)

-Ebaluazio-metodo argia eta zehatza, espero diren adierazle eta emaitzekin (5)

Aurrekontuaren egokitasuna eta koherentzia (5)

-Banakatu gabeko aurrekontua, zati bat bakarrik zehaztuz (2)

-Partida guztien kalkulua azaltzen da; jarduerekin koherentea eta justifikatua da (5)

2.2. Esku-hartzearen berezitasuna eta alderdi berritzaileak (5)

-Ez du alderdi berritzaileak aurkeztzen (0)



- Jardueraren xedeari dagokionez, berezitasunen bat du (2)
 - Alderdi bereziak eta berritzaileak aurkezten ditu ikuspegiari eta jardueri dagokienez (5)
 - 2.3. Onuradun izanen diren pertsonen estimazioa (5)
 - Ez du aipatzen hartailerik (0)
 - Zenbatespen orokorra edo onuradunen ratio oso txikia (2)
 - Zenbatespen zehatza eta kostuaren araberako ratioa (5)
 - 2.4. Beste entitate batzuekiko osagarritasuna eta koordinazioa proiektua garatzean (5)
 - Ez dira beste erakunde batzuk aipatzen (0)
 - Jardueraren xede bera duten erakundeekin koordinazioa dago (2)
 - Proiektu osagarria eta erakunde eta gizarte baliabide publikoekin koordinatua (5)
 - 2.5. Koordinazioa Iruñeko Udaleko Gizarte Ekintzako Alorreko programa eta baliabideekin (10)
 - Ez dira udal-programak aipatzen (0)
 - Koordinazioa planteatzen du, baina garatu gabe (5)
 - Koordinazioa eta metodologia planteatu eta garatzen ditu (10)
 - 2.6. Tokiak erreserbatzea, proposatutako ekintzetan, Iruñeko Udaleko Gizarte Ekintzako Alorretik bideratutako pertsonendako (10)
 - Ez du erreserbatzen (0)
 - % 50etik behera erreserbatzen du (5)
 - % 50etik gora erreserbatzen du (10)
 - 2.7. Kulturartekotasunaren ikuspegia (5)
 - Ez du kulturartekotasunaren ikuspegiak diseinuan eta exekuzioan (0)
 - Kulturartekotasunaren ikuspegia txertatzen du diseinuan, baina ez jardueretan eta edukietan (2)
 - Kulturartekotasunaren ikuspegia garatzen duten jarduera bat edo gehiago eskaintzen ditu (5)
 - 2.8. Kontziliazio-baliabideak (10)
 - Ez ditu kontuan hartzen (0)
 - Ekintza zehatzen baterako aurreikusten ditu (5)
 - Ekintza guztietarako aurreikusten ditu (10)
 - 2.9. Boluntarioen parte-hartzea sustatzea (10)
 - Ez du boluntario-lanik sustatzen edo baliabideen artean ez du zehazten (0)
 - Boluntarioen beharra aipatzen du eta prestakuntza planteatzen du (5)
 - Prestakuntza duten boluntarioen poltsa du eta behar diren boluntarioen zerrenda egin du (10)
- Dirulaguntzen onuradun izateko, gizarte-inklusioaren eremuan aurkeztutako proiektuek gutxienez 60 puntu lortu beharko dituzte, eta horietatik 55, gutxienez, 2. apartatuan adierazitako irizpidean, "Proiektuaren kalitate teknikoa" deiturikoa.
- Edozein unetan, instrukzio-organoak eskatzen ahalko dio entitate eskatzaileari eskaera baloratzeko lagungarri izaten ahal den beste edozein agiri. Halaber, balorazio-batzordeak txostenak eta aholkularitza eskatzen ahalko ditu, beharrezko joz gero, bai eta ofizios egin ere beharrezko jotzen dituen egiaztapen-jarduketak oro, aurkeztutako eskaeren gainera ebaluazioa egite aldera.

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeako, balorazio-batzorde bat eratuko da, kide hauek osatua:

Batzordeburua: Gizarte Ekintzako Alorreko Zinegotzi Ordezkaria



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

	Ordezkoa: Ordezko gisa izendatzen den beste zinegotzi bat.
Batzordekideak:	
1.	Gizarte Ekintzako Alorreko zuzendaria. Ordezkoa: Gizarte Ekintzako Alorreko idazkari teknikoa
2.	Gizarte Ekintzako Alorreko norberaren autonomiaren inguruko Programaren arduraduna Ordezkoa: Gizarte Ekintzako Alorreko arduradun bat
3.	Gizarte Ekintzako Alorreko teknikari bat Ordezkoa: Gizarte Ekintzako Alorreko teknikari bat
Idazkaria:	Zuzenbidean lizentziaduna, Gizarte Ekintzako Alorrari atxikia

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskaeren aurre-ebaluazio bat eginen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non egiaztatuko baita eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela ezen pertsona zein entitate onuradunek halakoak izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientea balorazio-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) apartatuan aurreikusten diren balorazio-irizpide objektiboen arabera.

Balorazio-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat eginen du, ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: Sei hilabete

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

☒ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta hura eskatzaileei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

☐ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta udal-webgunean argitaratuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluko b) letran agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- Tramitzatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskabidea sartu den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- ☐ Epea zenbatzeko beste sistema bat:

Prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsitzat joko da.

K. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzea: ☒ BAI ☐ EZ

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu



legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. GASTU DIRUZ LAGUNGARRIAK:

1. Gastu diruz lagungarrien zehaztapena:

Gastu diruz lagungarritzat joko dira diruz lagundutako jarduerarekin ezbairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek diruz lagungarriak dira:

a) Langileak: Jarduerari egotzitako langilea ordaintzeko gastuak diruz laguntzen ahal dira dirulaguntzaren xede den proiektu edo jardueraren proportzioko denboraren arabera. Aurrekontuan, ongi zehaztuta adierazi beharko dira honako hauek: proiektua gauzatzean esku hartuko duten langileen maila profesionala, haien arduraldia proiektuan, egiteko lanak (dirulaguntzaren xede den proiektuari ez dagozkion bestelako lanetatik ezberdinduz). Gastu horiek legalki behar den moduan justifikatu beharko dira (nomina, ongi egindako fakturak, dagozkien atxikipenekin...). Prestakuntza-jardueretan, proiektuan jasota egonen dira haietan emandako ordu-kopurua eta haien kostua, kontuan harturik laguntzak ez duela inoiz joko orduko 35 € baino gehiago. Hitzaldien kasuan (saio bakarrak), 160 € emanen dira gehienez hitzaldi bakoitzeko.

b) Funtzionamendu- eta administrazio-gastuak, halakotzat ulertuta jarduera egiteko beharrezkoak diren gastu orokorrak, hala nola ondasun eta zerbitzuen ohiko gastuak, hornigaiaren erosketa, lokalen alokairua, argia, ura, aseguruak, material suntsikorra, bulegokoa, etab. Gastu horiek ezin izanen dute gairitu guztira eskatu eta diruz laguntzen ahal den kopuruaren % 30.

c) Jarduerak: dirulaguntzaren xede den jarduerarekin zuzenean lotutako gastuak, haien izaeratik aurretiaz adierazitako gastu orokorrekin lotzen ez direnak. Horien artean daude garraio edo joan-etorriek eragindako gastuak eta kontuan hartuko dira baldin eta ezinbestekoak badira proiektua garatzeko, eskaeran aurreikusi badira eta entitateak egoitza non duen eta horko udal-mugartetik at egiten badira. Joan-etorriak, ahal dela, garraiobide publikoan egingen dira, eta ibilgailu partikularra erabili behar izanez gero, gehienez ere 0,25 € ordainduko dira kilometroko, baldin eta behar bezala egiaztatu eta justifikatzen badira gastuaren beharra, bidaiatzen duten pertsonen eginkizunak eta bidaiaren zioak (egin beharreko lanak, lekuak, datak, bidaia-kopurua, kilometroak, aurreikusitako kostua, etab.). Ibilgailu partikularrean egindako joan-etorriak justifikatzeko, bidaia-gastuen banakako likidazio-orria aurkeztu behar da, bidaiatzen duenaren identifikazio-datuekin. Ezin izanen da dirulaguntzaren % 20 baino gehiago erabili proiektu osoaren garraio edo joan-etorri kontzeptuetarako.

d) Tokikoak ez diren tributuak dirulaguntzaren xede izaten ahal dira, dirulaguntzaren onuradunak zuzenean ordaintzen baditu. Inola ere ez dira gastu diruz lagungarritzat joko berreskuratzen edo konpentsatzen ahal diren zeharkako zergak. Zehazki, Balio Erantsiaren gaineko Zergari (BEZa) dagokionez, bakarrik izanen dira dirulaguntzaren xede benetako kostuak izaki entitate onuradunak ordaindu dituen gastuen kopuruak, hau da, onuradunak benetan ordaindu dituenak eta kengarriak ez direnak.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastu bakoitzaren zenbatekoa, banan-banan hartuta, 18.000 eurotik gorakoa bada –ekipamendu ondasunen horniduraren kasuan edo aholkularitzako zein laguntza teknikoko enpresen zerbitzuen kasuan–, onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaileei dena delako zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa bere gain hartu baino lehen, salbu, dirulaguntza jasotzekoak diren gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan hornidura edo zerbitzu hori egin dezaketen behar adina entitaterik ez bada edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Aurkeztutako eskaintzen artean bat hautatzeko, efizientzia- eta ekonomia-printzipioei egin behar zaie men, eta eskaintzarik merkeena hautatzen ez bada, memoria batean berariaz justifikatu behar da hartutako erabakia. Eskaintzak, bestalde, justifikazioari erantsiko zaizkio, edo, bestela, dirulaguntzaren eskabideari.

Aurkezten diren elkarte edo entitateek dirulaguntza-deialdira aurkezten dituzten proiektuen berri emanen dute, jarduera bakoitza egiteari egozten ahal zaizkion gastu guztiak argi eta garbi banakatuta gera daitezen. Gastu horiek arrazionaltasun-ekonomikoko irizpideak bete beharko dituzte, bat etorriko dira deialdiaren xedearekin eta jardueraren garapenarekiko proportzionalak izanen dira, eta osorik justifikatu beharko dira, deialdian ezartzen den moduan.

Diruz laguntzen ahal diren kontzeptuen gastuetan aldaketa txikiak onartuko dira, ez badira funtsezkoak, betiere.

Gastu diruz lagungarrietan, kostua ezin izanen da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) letraren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

☐ BAI ☒ EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere diruz lagunduko:

- Jardueretan parte hartzen dutenendako ekarpen ekonomikoak zein gauzazkoak. Horiek salbuespenez onartuko dira gizarteratze-esparruko proiektuetan, ezinbestekotzat jotzen badira onuradunak jardueretan gera daitezen eta haien helburua bada jarduerak gauzatzearekin estu lotutako gastuei aurre egitea.
- Jardueretan parte hartzen dutenendako otorduak. (Otamenak izan ezik; kasu horretan diruz lagundutako gastuak ezin izanen du gaintitu emandako dirulaguntzaren % 7).
- Inbertsioak eta material inbentariagarriak (halakotzat joko da 300 € baino gehiagoko zenbateko banakatua duena).
- Eskersariak eta opariak.
- Ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko deialdi hau gauzatzeko alditik kanpo egindakoak.

2. Gastu diruz lagungarriak egiteko epea: *gastu diruz lagungarriak izanen dira 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra bitarteko epean benetan egindakoak.*

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoa:

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra: ☒ BAI ☐ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoa: edonola ere, entitate eskatzaileak konpromisoa hartzen du dirulaguntzaren xedea den proiektuaren % 20, gutxienez, bere funtsekin edo beste administrazio publikoek edo entitate



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

privatuek emandakoekin finantzatzeko. Aurkeztutako proiektu bakoitzak finantza-memorian adierazitako guztizko kostuaren % 20 finantzatu beharko du gutxienez bere funtsekin edo/eta beste administrazio publiko batzuk edo entitate pribatuetatik datozenekin, salbu eta inguruabar bereziak gertatzen badira. Halakorik balitz, Balorazio Batzordeak baloratuko ditu, eta horien txostena egingen du. Hori argi islatu beharko da proiektuen aurkezpenean eta aurrekontuetan.

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Adierazitakoa gorabehera, dirulaguntza hau jasotzea, modalitate honetan, bateraezina izanen da Iruñeko Udaleko Gizarte Ekintzako Alorrak eta beste udal-alorrek xede bererako ematen dituzten dirulaguntzekin, dirulaguntzetarako deialdi eta/edo lankidetza-hitzarmen bidez jaso badira.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egingen da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

☒ Konturako ordainketa:

☐ Ordainketa zatikatua:

☐ Ordainketa aurreratua:

☒ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta alde aurrekoaren artekoa: Behin dirulaguntzen gaineko ebazpena eman eta gero, dirulaguntzak guztira zenbat jo eta horren % 80 ordainduko zaie entitateei, aurrerapen gisara. Ordainketa bi hilabeteren buruan egingen da gehienez ere, ebazpena jakinarazi eta hortik aitzina.

Gainerako % 20a ordainduko da deialdi honetako P.2 apartatuan aipatzen den lehen epeko justifikazio-agiriak aurkeztu ondoren, baldin eta, dokumentu horiek aztertu eta baloratu ondoren, organo eskudunak justifikazio hori onesten badu.

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

Aurrekoa gorabehera, Udalak ofizioz kitatzen ahalko ditu, alde aurretik, dirulaguntzen entitate onuradunengandik kobratzeke dituen zorrak, dirulaguntza horiek, osorik edo parte batean, zor dituzten kopuruekin konpentsatuta.

2. Bermeen eraketa:

☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

P. JUSTIFIKAZIOA:



1. Justifikatzeko modalitatea: Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

☒ Justifikazio-kontua:

☐ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.

Bestelako edukiak: ☐ BAI ☐ EZ

☒ Justifikazio-kontu erraztua.

Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan argitara emandako "Dirulaguntzen justifikazio elektronikoa pertsona juridikoendako" izapidearen bidez aurkeztuko da; ondoren zehazten diren agiriek osatuko dute eta horiekin batera deialdi honen VI. eranskina (Justifikazioaren aurkezpena) erantsi beharko da:

a) Entitateak edo elkarteak egindako Ebaluazio-memoria teknikoa, dirulaguntzen xedea den jardueraren gainean, non xehetasunez aitortuko baitira dirulaguntzen bidez finantzatu diren jarduerak eta haien kostua. Memoriaren edukia VI. eranskinaren 1. puntuan adierazitakoa izanen da. Lehen justifikazio partziala egiteko, P.2. apartatuarekin bat, nahikoa izanen da tarteko txosten narratibo labur bat egitea proiektuaren bilakaeraz.

Memoriek eta justifikazio-txostenek ezinen dute 20 orri baino gehiago izan.

b) Diruz lagundutako proiektuaren gastu guztien zerrenda sailkatua (ez bakarrik dirulaguntzaren kopurura iritsi arte), non honako hauek identifikatuko baitira: hartzekoduna, agiria, zenbatekoa, jaulkitze-data eta ordainketa-data. (VI. eranskinaren 3. koadroa).

c) Udalaren dirulaguntzari egotzitako zatiaren gastuak justifikatzeko eta ordainketak egiaztatzeko agiriak. Nolanahi ere, ez da gastuen ordainagiririk aurkeztu behar, gastuaren zenbatekoa, banaka hartuta, 100 euro baino gutxiagokoa bada, eta gastu mota horiek, guztira, 1.500 eurotik gora jotzen ez badute.

Bigarren justifikazio-epera arte atzeratzen ahalko da horiek aurkeztea.

P.2 apartatuan ezarritako bigarren justifikazio-epetan, laginketa-teknikak erabilia, Unitate Kudeatzaileak diruz lagundutako gastuak justifikatzeko agirien % 20 gutxienez eskatuko du eta horien bidez egiaztatuko da hala gastua eta ordainketa egin dela nola dirulaguntzaren aplikazioa – gutxienez diruz lagundutako guztizkoaren % 30– egokia izan dela, betiere barne hartuta zenbatekorik handienetako gastuak eta zalantzarri izaten ahal direnak.

Apartatu honetan eskatutako dokumentazioa elektronikoki, informatikoki edo telematikoki aurkezten ahalko da. Kasu horretan, onuradunek erantzukizunpeko adierazpena erantsiko dute telematikoki aurkeztutako agirien egiazkotasunari buruz.

d) Jarduera finantzatzeko erabili diren beste diru-sarreraren edo dirulaguntzen zerrenda zehatza, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita. (VI. eranskina, 4. koadroa).

e) Halakorik balitz, aplikatu gabeko geldikinak eta horiei dagozkien berandutze-interesak itzuli izanaren ordainketa-agiria.

Behin justifikazioa aurkeztu eta aztertu eta gero, Udaleko teknikari eskudun batek balorazio-txosten bat egingen du. Bertan, espresuki adierazita geldituko da guztiz bete dela dirulaguntzaren xedea, edo, zein diren justifikazioa onestea eragozten duten akatsak edo inguruabarrak.

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):



Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitateko egoera-orriak aurkeztea (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitateko egoera-orriak ofizialak direla eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☐ Beste sistema bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga:

a) Lehen epea: Tarteko txosten narratiboa.

2026ko irailaren 15erako, entitateek agiri teknikoak eta ekonomikoak aurkeztu beharko dituzte 2026ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitarte, biak barne, emandako dirulaguntzaren kargura egindako jarduerak justifikatzeko. Justifikazioak bat etorri beharko du eskaerarekin batera aurkeztutako proiektuaren aurrekontuko kontzeptuekin, edo, baimendutako aldaketen ondorengoekin, bai eta deialdian erantsitako VI. eranskineko ereduarekin ere, eta aurreko epigrafean adierazten diren dokumentuak erantsi beharko zaizkio.

Salbuespenak: epe bakarra.

1. Baldin eta jarduera guztiak, edo gehienak, urteko azken sei hilekoan egiten badira, lehendabiziko epe horren barruan eskaera bat aurkeztu beharko da, eskabide orokorraren ereduarekin bat, bigarren justifikazio-epeari epe bakar gisa heldu ahal izateko.

2. Halaber, eta modu berean, dirulaguntzaren zenbatekoak 4.000 €-tik gora jotzen ez duen kasuetan, proiektuek bigarren justifikazio-epeari heltzen ahalko diote epe bakar gisara.

b) Bigarren epea:

2027ko urtarrilaren 20rako, entitateek aurkeztu beharko dituzte proiektuaren aldi osoari dagokion amaierako memoria teknikoa eta 2026ko uztailaren 1etik abenduaren 31ra bitarte, biak barne, egindako jardueren justifikazio-agiri ekonomikoak.

Epe bakarreko kasuetan, aurreko puntuan ezarritakoarekin bat, 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldiari dagozkion agiri teknikoak eta ekonomikoak aurkeztu behar dira.

Azken gastua bigarren epe horretan aurkeztutako gastuei buruzko txostena egin ondoren onetsiko da.

Baldin eta benetako defizita edo benetako gastuak eskaera egitean aurreikusi eta dirulaguntzaren zenbatekoa zedarritzeko baliatutakoak baino txikiagoak badira, aintzat hartuko da inguruabar hori, eta proportzioan murriztuko da behin betiko eman behar den kopurua.

Agiriak ezaugarri-koadro honetako G.1 apartatuan adierazitako bitartekoren baten bidez aurkeztu behar dira.



Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan ageri diren itzularazteko arrazoietakoa batek ukitzen badu onuraduna, eta apartatu honetan aurreikusitako gainerako kasuetan.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI ☐ EZ

a) Gastuak justifikatzeko agiririk aurkezten ez bada, aurkeztutako dokumentazioa osatugabea bada edo ezarritako epetik kanpo aurkezten bada, jasotako dirulaguntzaren zenbatekoa itzuli beharko da, edo, halakorik balitz, ordaintzeke dagoen kopurua jasotzeko eskubidea galduko da, betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45.1.c) artikuluekin bat.

b) Emandako dirulaguntza diruz lagundutako proiektua egiteko erabiliko da. Dirulaguntza beste xede baterako erabiltzeak dirulaguntza kobratzeko eskubidea galtzea edo zenbatekoa itzuli behar izatea dakar.

c) Edozein zio dela medio gastuak egiten ez badira, edo horietan funtsezko aldaketak egiten badira, Iruñeko Udalak organo kudeatzailearen bidez horretarako berariazko baimenik eman gabe.

R. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☒ I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.

☒ II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.

☒ III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.

☒ ERANSKIN OSAGARRIAK.

IV. ERANSKINA. Proiektuaren aurkezpena.

V. ERANSKINA. Entitate eskatzailearen datuak.

VI. ERANSKINA. Justifikazioa aurkeztea.

VII. ERANSKINA. Erantzukizunpeko adierazpena adingabeekiko kontaktuari buruz.

VIII. ERANSKINA. Zergei nahiz gizarte segurantzari buruzko betebeharrak betetzearen gaineko datuak kontsultatzeko baimena

IX. ERANSKINA. Erantzukizunpeko adierazpena: dirulaguntzen justifikazio telematikoa.

OHAR GARRANTZITSUA: *agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es/e

NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA